



elkarkidetza
PENTSIOAK

LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO BGAE
EPSV DE EMPLEO PREFERENTE

2023



**PLANIFIKATU
ZURE ETORKIZUNA**

Euskadiko Sektore Publikoko Pentsioen sistema osagarria

toki eta foru instituzioak eta
beste instituzio, organismo autonomo eta
sozietate publikoak.

Ikuspegi soziala

Ekarpen parekidea

Kaudimena

Profesionaltasuna eta esperientzia

www.elkarkidetza.eus

1. Zer da Elkarkidetza?
2. Nor izan daiteke bazkide?
3. Zergatik egin ekarpenak Elkarkidetzari?
4. Noiz hasiko naiz ekarpenak egiten?
5. Zenbateko ekarpena egin dezaket?
6. Zer jasotzen dut...?
 - Erretiroa hartzen badut
 - Ezintasun iraunkor bat badut
 - Erretirora iritsi aurretik hilko banintz
 - Lanik gabe geratzen banaiz
 - Nola tributatzen dute pentsioek?
7. Alta eman nahi dut
8. Borondatezko ekarpenak
9. Nola ekin berriro nire ekarpenei



Zer da **1** Elkarkidetzari?

Elkarkidetzari, Toki eta Foru instituzioetan eta beste instituzio, organismo autonomo eta sozietate publikoetan lan egiten duten langileen Gizarte Segurantzaren Publikoaren pentsioak osatzeko eta, horrela, hileroko pentsio baten bidez bizitza maila egokiaz erretiroaz gozatzeko xedez eraturako, irabazi asmorik gabeko lehentasunezko enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Erakundea (BGAE) da.

Negoiazio kolektiboaren barruan ezarritako gizarte aurreikuspen sistema da, bertako kide direnen taldeak, sindikatuak eta Administrazioak sustatua eta kontrolatua.

1986an jarri zen martxan, eta bertako bazkideen beharretara egokitu eta garatuz joan da. Sistemaren helburu nagusia, erretiratzearen unean estaldura eskaintzea da, eta elkartasun elementu garrantzitsua sartzen du ezintasun iraunkorra eta heriotza estali ahal izateko.

Kudeaketa, pentsioen alorrean esperientzia handia duen profesional aditu talde batek egiten du, kaudimen eta epe luzeko jasagarritasun irizpideetan oinarrituz.

Nor izan daiteke bazkide?

Funtzionario, lan, bitarteko edo aldi baterako kontratua duten pertsonak, baldin eta Elkarkidetzari atxikitako instituzio edo enpresa publikoren batean lan egiten badute, lanaldi osoan edo lanaldi partzialean.

Zergatik egin **3** ekarpenak Elkarkidetzari?

JARTZEN DUZUN EURO BAKOITZEKO, ZURE INSTITUZIOAK KOPURU BERA JARRIKO DU.

1+1

zure izenean dagoen kontu batean

% 50
ekarpen
pertsonala

% 50
instituzioaren
ekarpena

% 100

Elkarkidetzako bazkidea

Gure **ostu txikienak**, gure **kudeaketa profesional eta independenteak errentagarritasun handiagoak ekartzen dituzte epe luzean.**

Irabazi asmorik gabeko erakundea gara eta irabazi guztiak bazkideei itzultzen zaizkie. Bestalde, **gure kudeaketa gastuak txikiak dira.**

Elkarkidetzaren gastuak	% 0,65	Administrazio gastuak zuzeneko gastuak % 0,29 eta zeharkakoak % 0,36
Legezko gehieneko gastuak	% 1,60	Banakako BGAEek gehiengoz aplikatutako gastuak

Gure **kudeaketa profesional eta independenteak gastu murriztuekin batera**, errentagarritasun handiagoak dakartza.

Elkarkidetzaren errentagarritasunak aldi guztietan argi eta garbi gailentzen du enplegu-sistemek lortutako errentagarritasuna eta, jakina, **banakako sistemek lortutakoa**. Nagusitasun horrek agerian uzten du Elkarkidetzan egiten den kudeaketa ona.

Urteak	20	15	10	5	3	1
Banakako sistema EF misto	% 1,56	% 0,87	% 0,81	% -1,07	% -2,08	% -8,55
Enplegu-sistema	% 2,72	% 1,79	% 2,10	% -0,05	% -1,16	% -9,24
Elkarkidetzaz	% 4,59	% 3,52	% 4,04	% 2,58	% 1,95	% -4,70

INVERCO Inbertsio Kolektiboko Erakundearen eta Pentsio Funtzen Elkartearen datuak. Iraganeko errentagarritasunak ez dute etorkizuneko errentagarritasunik bermatzen edo zehazten. 2022-12-31ko datuak.


4 Noiz hasiko naiz ekarpenak egiten?

Zenbat eta lehenago hobe

Denbora luzean ekarpen jarraituak egiteak eragin zuzena du kapitalaren eraketan edo aurrezkian.

Pentsio bat sortzeak ekarpen nahikoa eskatzen du, ekarpen-aldi eten-gabeak eta luzeak, eta errentagarritasun egokia, bai aurrezki pertsonala eratzen duzun urteetan, bai pentsioa jasotzen duzun urteetan.

Metatutako errendimendua esponentzialki hazten da denborak aurrera egin ahala.



40 urteko ekarpena duen aurrezkiak 10 urteko ekarpena duena baino 7,3 aldiz handiagoa da.

Ahalegina txikiagoa izango da, ez bakarrik ekarpenak egiteko urte gehiago izateagatik, baizik eta urte horietan zehar aurrezpen handiagoa sortuko duen errentagarritasuna lortuko delako.

Ekarpen-aldia zenbat eta luzeagoa izan, orduan eta pentsio handiagoa lortzen da.

Ikus dezagun nola eragiten duen ekarpen-aldiak, ekarpen-ehuneko desberdinekin, pentsioaren zenbatekoan.

Ekarpen pertsonala		Pentsioa 65 urterekin ekarpenak egiten badituzu			
Ehunekoa	Zenbatekoa	40 urtez	30 urtez	20 urtez	10 urtez
% 3,00	64,55 €	166,29 €	118,78 €	77,21 €	35,63 €
% 3,50	75,31 €	194,01 €	138,58 €	90,08 €	41,57 €
% 4,00	86,07 €	221,70 €	158,36 €	102,93 €	47,51 €

Hipotesiak: Errentagarritasuna % 2,5, KPI % 1,5, hilkortasuna PER 2020
 Lehen mailako kolektiboa, interes-teknikoa % 0,50 eta aurrezteko ekarpena (ekarpenaren % 92).

5

Zenbateko ekarpena egin dezaket?

Elkarkidetzaren enplegu sistema bat da, non ekarpenen zenbatekoak instituzioari eragiten dioten hitzarmen edo akordio kolektiboen eta Gobernu Batzordeak horri buruz hartzen dituen erabakien arabera finkatzen diren.

Zure instituzioaren arabera, oinarriaren gaineko hileko ekarpenaren ehunekoa bat edo bestea izango da. Zure sailkapen-taldeak zehaztuko du ordaindu beharreko kuota. Adibidez, C1 kategoriako profesional batek % 7ko (% 3,5 + % 3,5) ekarpen bateratuak adostu dituen instituzio batean 90,10 euro ordainduko ditu, eta instituzioak gauza bera ordainduko du, 180,20 euroko hileko kuotarekin.

Taldea	Urteko oinarria	8%	7%	6%
A1	53.792,67 €	153,69 €	134,48 €	115,27 €
A2 / B	43.927,33 €	125,51 €	109,82 €	94,13 €
C1	36.040,67 €	102,97 €	90,10 €	77,23 €
C2 / AP	30.123,33 €	86,07 €	75,31 €	64,55 €

Urtero 14 kuota ordaintzen dira (12 hilerokoak eta ekaineko eta abenduko gehigarriak). Hauek nominan atxikiz egiten dira.

Ikuspegi fiskaletik, ekarpen pertsonalek zerga-oinarria murrizten dute PFEZaren aitortpena egitean, une bakoitzean indarrean dagoen zerga-araudiak ezartzen dituen mugekin. Instituzioaren ekarpena zergeri dagokienean, neutroa da.

6

Zer jasotzen dut...?

Ekarpen pertsonala eta instituzionalaren **% 92** eta ekarpen horien inbertsioak urteetan zehar sortzen dituen etekinak zure izenean metatutako aurrezkiak da, eta hori biziarteko pentsio baten kobrantza bihurtuko da prestazioa sortzen den unean.

Ekarpenen **% 8**ak elkartzaren elementu garrantzitsu bat du, eta kapital gehigarria sortzera bideratzen da. Bazkidea, ezintasun iraunkor baten edo heriotza baten ondorioz erretiro adinera iristen ez denean, kapital horrek, pentsio egoki bat lortzeko aukera ematen du.

Kapital gehigarriaren zenbatekoa instituzioak eta kotizatzen ari den bazkideak Gizarte Segurantzaren Sistema Publikoan edo antzekoan erretiratzeko ezarritako adina lortu arte egingo ziztuzten ekarpenak izango dira; oinarritzat azken 12 hilabeteetan egindako ekarpenen batez-bestekoa hartzen da eta % 20 gehituta.



Prestazioak pentsio publikoaren osagarri dira zuretzat, hala bada-gokio, zure ezkontidearentzat edo bizikidearentzat; halakorik ezean, zure seme-alabentzat eta, azkenik, zure oinordekoentzat.

Prestazioa jasotzeko eskubidea sortzen da gertaera eragilea gertatu denean (erretiroa, ezintasun iraunkorra, heriotza edo langabezia), pertsonak lan-harremana eten duenean, Erakundearekiko betebeharrak egunean dituen eta prestazioa eskatzen duenean, Elkarkidetzaren ereduaren arabera, Prestazioen Erregelamenduaren arabera eskatzen diren dokumentuekin batera.

Pentsioak hileroko kobratzen dira, eta ekainean eta abenduan zenbateko bereko hileko ordainsari gehigarri bat jasotzen da, langabezian izan ezik.

Prestazioen Erregelamenduan araututako mozkinetako partaidetzaren arabera hobetuko da pentsioa, langabezian izan ezik.

Erretiroa hartzen badut

Zure metatutako aurrezkiarekin kalkulaturako biziarteko pentsioa kobratuko duzu.

- **Alarguntasuna:** Zure ezkontideak edo bizikideak **zure pentsioaren % 100eko biziarteko pentsioa** kobratzen du.
- **Zurztasuna edo oinordekoak:** Ezkontiderik edo bizikiderik izan ezean, edo hura hiltzen bada, zure seme-alabek edo, halakorik ezean, oinordekoek **90 urtera arte jasoko zenituen errenta guztiak** edo kapital baliokidea kobratuko dute.

Ezintasun iraunkor bat badut

Biziarteko pentsioa kobratuko duzu, **zure metatutako aurrezkiarekin** eta **kapital gehigarriarekin** (ekarpenak egiten ari bazara).

- **Alarguntasuna:** Zure ezkontideak edo bizikideak **zure pentsioaren % 100eko biziarteko pentsioa** kobratzen du.

- **Zurztasuna edo oinordekoak:** Ezkontiderik edo bizikiderik izan ezean, edo hura hiltzen bada, zure seme-alabek edo, halakorik ezean, oinordekoek **90 urtera arte jasoko zenituen errenta guztiak** edo kapital baliokidea kobratuko dute.

Erretirora iritsi aurretik hilko banintz

- **Alarguntasuna:** Zure ezkontideari edo bizikideari pentsio baten ordainketaren kalkulua egingo zaio. Kalkulua une horretan metatutako aurrezkiarekin eta kapital gehigarriarekin egiten da, (ekarpenak egiten ari bazara). Hiltzen bada, zure seme-alabek edo, halakorik ezean, zure oinordekoek 90 urte arte kobratuko lituzkeen pentsioak kobratzen dituzte, edo kapital baliokidea.
- **Zurztasuna:** Alarguntasun prestaziorik ez badago, zure seme-alabek, zati berdinetan, metatutako aurrezki eta kapital gehigarria kobratuko dute, betiere ekarpenak egiten badituzu, modu honetara:
 - **25 urtetik beherako seme-alabek: finantza errenta** 25 urte arte
 - **25 urtetik gorako seme-alabek: kapitala**

Ezkontiderik, bizikiderik edo seme-alabarik izan ezean, zure oinordekoek, zati berdinetan, metatutako aurrezki eta kapital gehigarria kobratuko dute, betiere ekarpenak egiten badituzu.

Prestazioaren zati bat kapitalean kobratu daiteke?

Erretiroko, ezintasun iraunkorreko eta jarduneko heriotzaren prestazioetan, kapitalizatzeko aukera izango duzu:

- Aurrezkiaren % 25 arte, hilean 111 euroko gutxieneko pentsioa sortuko duen zenbateko nahikoa mantentzea beharrezko izango delarik.
- % 100, hilean 111 eurotik beherako pentsioa sortzen baduzu.

Lanik gabe geratzen banaiz

Gizarte Segurantzako kontribuzio-mailako prestazioaren baliokidea den hileko errenta kobratzen duzu, zure aurrezkiaren kontura, langabezia-egoerak irauten duen bitartean edo zure aurrezki agortu arte.

Nola tributatzen dute pentsioek?

Pentsioak laneko etekin gisa hartu behar dira PFEZ aitortpena egiteko orduan. Elkarkidetzak ez du bere gain hartzen zerga eta/edo finantza-aholkularitzarako inolako betebeharririk. Kontsultatu zure zerga administrazioan eta/edo zerga aholkularitzan.

7 Alta eman nahi dut



Gure lurralde-ordezkaritzetan, zure instituzioko pertsonal sailean edo Elkarkidetzaren webgunean eskuragarri da goen **sarrera-eskaera** bete behar duzu, eta zure **NAN**aren **fotokopia** batekin batera entregatu.

Garrantzitsua al da Elkarkidetzan alta eskatzea, instituzioan lanean hasi naizen une berean?

Instituzio baten sarrera Elkarkidetzan onartu edo kontratua gauzatu eta bi hilabeteko epean alta eskatzen baduzu, ez zaizu bi urteko ga-bealdia aplikatzen kapital gehigarrirako.

Aldi baterako edo bitarteko kontratua dut, alta ematea interesatzen zait?

Gainerako langileei bezala, pentsioak sortzeko aurrezki bat metatzen lehenbailehen hastea interesatzen zaizu.

Zer gertatzen da instituzioarekin dudan lan-harremana amaitzen denean?

Instituzioa uzten baduzu, zure ekarpenak egiten jarraitzeko edo bertan behera uzteko aukera duzu. Aurrezki eta bere etekinak zure ize-nean mantentzen dira prestazio bat eskatu arte.

8 Borondatezko ekarpenak

Borondatezko ekarpenak pentsio guztiak indartzeko balio du; horregatik, zenbateko egonkorra izan behar du, hitzarmenean ezarritako ekarpenarekin batera.

Elkarkidetzan 40 urteko ekarpena egitera iristen ez diren pertsonak, edo haien sailkatzen-taldeak ekarpen-oinarriaren eta jasotzen duen soldataren arteko aldea sortzen badu, beren ekarpenak indartu ahal izango dituzte, eta borondatezko ekarpenak egin ahal izango dituzte, hilekoak eta banakakoak (urteko gehienekoa: 4.575 euro) hitzarmenean ezarritakoaz gain.

Bi urte igaro beharko dira borondatezko ekarpenak egiten hasi zirenetik, gaixotasunagatiko ezintasun iraunkorra eta heriotza prestazioetan kapital gehigarriaren gehikuntza indarrean jar dadin.

9 Nola ekin berriro nire ekarpenei

Instituzioarekin lan-harremana baduzu eta borondatez baja eman bazenuen, edozein unetan eskatu ahal izango duzu zure ekarpenei berriz ekitea. Horrela, instituzioaren ekarpenak eta kapital gehigarriaren estaldura berreskuratuko dituzu ezintasun iraunkorragatiko eta heriotzagatiko prestazioetan.

Abian den urteko lehen sarrera-eskaera bada, zure altak eskaera egin eta hurrengo hilaren lehenengo egunean izango ditu ondorioak. Bestela zure altak sarrera-eskaera egin eta hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Ekarpenak ez egiteko aldia urtebetetik gorakoa bada, berriz ekarpenak egiten hasi eta bi urteko gabealdia aplikatuko da kapital gehigarria estaltzeko gaixotasun baten ondoriozko heriotzagatiko eta ezintasun iraunkorragatiko prestazioetan.

www.elkarkidetz.eus

ARABA/ÁLAVA

Ramón y Cajal 7-9
01007 Vitoria-Gasteiz
T.: 945 141 141
araba@elkarkidetz.eus

BIZKAIA

Gardoqui 2
48008 Bilbao
T.: 944 155 578
bizkaia@elkarkidetz.eus

GIPUZKOA

Mendeurren Plaza 6
20006 Donostia-San Sebastián
T.: 943 430 256
gipuzkoa@elkarkidetz.eus